# E R A N S K I N A K

## I. Eranskina: Proiektua garatzeko faseak

Ikasketa eta Zerbitzua arloko proiektua diseinatzeko eta garatzeko, Puigek et al-ek (2006) eta Zerbikasek (2008b) azaldutako prozesua jarraitu dugu. Aditu horiek prozesuak hiru une nagusi dituela defendatzen dute: prestakuntza, betearazpena eta ebaluazioa. Aldi berean, hiru une horiek zazpi etapatan banatzen dituzte.




*1. grafikoa. I-S proiektua garatzeko faseak*

Hurrengo lerroetan proiektua garatzeko emandako pausoak etapaz etapa ikus daitezke:

### A) <u>Lehenengo fasea: prestakuntza</u>

### 1. Etapa: zirriborroa egitea.

Lehenengo pausoan proiektuaren esparrua; belaunaldien arteko trukea, erabaki dugu. Horretarako, seigarren mailako ikasleekin eta adineko pertsonekin garatzea erabaki dugu. Adineko pertsonak boluntarioak izango dira, gure hasierako asmoa ikasleen familiekin eta herriko jubilatu-etxearekin kontaktuan jartzea izanda. Hala ere, herrian izandako aurreko esperientziengatik ikasleen aiton-amonekin garatzea erabaki dugu. Azkenik, proiektua zein irakasgaitan garatuko den adostu dugu ikastetxearekin.

Bigarren pausoan taldearen ezaugarri nagusiei buruzko ikuspegi bat lortzea izan da gure helburua. Horretarako taldekideen motibazioak eta interesguneak eta taldeko giro morala,

baloreak, jarrerak, proiektuka lan egiteko esperientzia, adimen eta ikasketa maila ikertu ditugu.

Behin taldearen ezaugarriak jakinda, zerbitzu soziala (dinamizazio saioak) definitu dugu, ezaugarri horietara egokituz. Modu berean, ikasketaren ardatz nagusiak zehaztu ditugu. Irakasleek Gizarte Zientziak, Tutoretza, Euskara, Musika, Artea eta Heziketa Fisikoa irakasgaiak proiektuan sartuko direla esan digutenez gero, irakasgai horien programazioak eta curriculuma aztertu ditugu.

2. **Etapa: harremanak ezartzea gizarte erakundeekin.**

Proiektuaren zirriborroa prestatu ondoren, zerbitzua garatzeko erakundeak bilatzen hasi gara. Ikastetxeak ez zuen nahi eskolako eta eskolaz kanpoko ekintzak nahastu, eta horregatik ez zitzaion egokia iruditu Gurasoen Elkartearen presentzia. Boluntarioak bilatzeko jubilatuen etxera joatea pentsatu dugu, baina, herrian izan ziren aurreko esperientziengatik ikastetxeak nahiago izan zuen ez kontaktatzea. Ondorioz, boluntarioak bitartekorik gabe bilatuko ditugula adostu dugu ikastetxearekin.

Zahar-etxeari dagokionez, Gueñeseko zahar-etxeko zuzendariarekin bildu gara eta proiektua azaldu diogu. Zuzendariari ondo iruditu zaio proposamena. Adineko pertsonen ezaugarriak komentatu eta zerbitzuaren aspektu teknikoak adostu ditugu: ordutegia, gela, soinu ekipoa, segurua eta kontaktatzeko era. Aspektu horiek guztiak zehatz-mehatz jaso ditugu lankidetza-akordio batean.

3. **Etapa: plangintza.**

Normalean, proiektuaren plangintza umeekin eta irakasle taldearekin batera prestatzen da, baina kasu honetan guk geuk egin dugu. Ikasleei dagokienez, haien esperientzia falta eta haiekin egoteko eta ideiak komentatzeko denbora eza kontuan hartuta, egokiena iruditu zaigu plangintza euren iritzia kontuan hartu gabe eratzea. Irakasleekin aldiz, beraiek proiektuaren plangintzan parte-hartzea nahi izan dugu, baina, denbora falta zutela argudiatuz guk antolatzeko eskatu digute, ordu kopurua eta irakasgaiak bakarrik finkatuz. Etapa honetan hartu ditugun erabakiak honako hauek dira:

- Alderdi pedagogikoak zehaztea: proiektuaren helburuak, jarduerak, antolamendua, ordutegia, ebaluazioa eta hezitzaile bakoitzaren eginkizunak finkatu ditugu.
- Kudeaketa eta antolakuntza zehaztea:
  - Baldintza formalak: boluntarioen presentzia eta irteera ikastetxearen seguruan sartuta daudela ziurtatu ditugu. Modu berean, irteera egiteko eta umeen aragazkiak erabiltzeko familien baimenak aztertu ditugu.
  - Familiekiko harremanak: proiektua, irteera eta amaierako festa familiei komunikatzeko gutunak idatzi ditugu.
  - Garraioa: Feve trenbide enpresarekin finkatu dugu.
  - Proiektuaren berri hedatzea: Ikastetxeak erabaki du bere *facebook*-ean eta *webgunean* proiektua jasotzea.
  - Aurrekontua: proiektuaren gastuak eta kudeatzeko era tutoreekin adostu ditugu.

### 4. Etapa: prestaketa.

Proiektuaren ezaugarriak behin planifikatuta umeekin lan egiten hasi gara. Lehenengo momentuan taldearen baloreak, aurreiritziak eta giroa ikertu ditugu. Behin horiek jakinda, arazoa lantzeko saio batzuk egin ditugu umeek arazoari buruzko kontzientzia hartzeko eta sentsibilizazioa garatzeko. Azkenik, zerbitzua prestatzen hasi gara. Gure aurreko planifikazio guztia ordu kopuru zehatz baten arabera finkatuta zegoen, baina fase honetan ordutegi murrizketaren berri izan dugu. Ondorioz, aldaketak egin behar izan ditugu.

### B) Bigarren fasea: betearazpena

### 5. Etapa: betearazpena

Proiektua martxan jarri dugunean, irakasle eta arduradun moduan aritu gara. Irakasle moduan batetik, proiektua bideratu dugu umeekin eta bestetik, proiektua behin eta berriro egokitu behar izan dugu ordutegiaren arabera. Aldi berean, ikasleen familiekin harremanetan egon gara proiektuaren momentu berezienak (hasiera, emanaldiaren eguna eta amaierako festa) jakinaraziz. Zahar-etxearekin ere kontaktuan egon gara emanaldiaren data finkatzeko eta aspektu teknikoak birpasatzeko.

### 6. Etapa: amaiera

Etapa hau zerbitzua eman ondoren garatzen da eta bertan azkeneko hausnarketa egin dugu taldearekin. Hausnarketa horren bidez umeen sentimenduak eta iritziak jaso eta horrelako esperientziak garatzen jarraitzera bultzatu ditugu ikasleak, konpromiso sozialaren grina pizten saiatuz. Modu berean, ikasketaren helburuak abiapuntutzat hartuta, berrikuspena egin dugu ikasleekin jakiteko zenbaterainokoa izan den helburu horien lorpena. Horretarako amaierako galdetegia eta hausnarketa saioa egin ditugu. Azkenik, proiektua ospatu dugu amaierako festa batean. Gure asmoa izan da ikasleek egindako esfortzua saritzea eta auto-estimua sendotzea, familiei eta gizarteari egindako lana komunikatzea eta erakundearen laguntza eskertzea.

## C) Hirugarren fasea: ebaluazioa

### 7. Etapa: ebaluazioa

Behin esperientzia amaituta, bere ebaluazioa egin dugu, hau da, proiektuaren egokitasuna neurtu dugu. Horretarako, esperientziaren parte-hartzaile guztien iritzia kontutan izan dugu. Modu berean, parte hartu dugun pertsona guztion ebaluazioa ere egin dugu: ikasleen ebaluazioa, erakundearen ebaluazioa, irakasleen ebaluazioa eta gure auto-ebaluazioa.

Hurrengo taulan proiektuaren kronograma ikus daiteke:

| Hilabetea<br>Etapa | 16/ 06 | 16/ 07 | 16/ 08 | 16/ 09 | 16/ 10 | 16/ 11 | 16/ 12 | 17/ 01 | 17/ 02 | 17/ 03 | 17/ 04 | 17/ 05 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Zirriborroa | | | | | | | | | | | | |
| Erakunde harremana | | | | | | | | | | | | |
| Plangintza | | | | | | | | | | | | |
| Prestaketa | | | | | | | | | | | | |
| Betearazp. | | | | | | | | | | | | |
| Amaiera | | | | | | | | | | | | |
| Ebaluazioa | | | | | | | | | | | | |

*1. Taula. Proiektuaren kronograma*

## II. Eranskina: Ikasketa Zerbitzuaren eta Ikasketa Dialogikoaren arteko konparazioa

| EZAUGARRIAK | IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOA[1] | IKAS KOMUNITATEAK[2] |
|---|---|---|
| Jatorria eta eboluzioa | 50. hamarkadan jaio zen Estatu Batuetan. Egun, arrakasta nabaria du Ipar eta Hego Amerikan. Europan, Herbehereak dira erreferentea eta estatu mailan, Kataluniak eta EAEk garatzen dituzte esperientzia gehienak. | 60. hamarkadan jaio zen Estatu Batuetan. Egungo erreferenteak Estatu Batuak, Kanada, Brasil eta Korea dira. Espainian, esperientzia gehienak Katalunian eta EAE-an garatzen dira. |
| Oinarri teorikoak | - William James: zerbitzu soziala gazteen artean lankidetza, harrotasuna, gizarteari laguntzeko grina eta partaide izateko zentzua sortzeko baliogarria da.<br>- John Dewey: ikasketa esperientziaren bidez lortzen da eta arazo errealetatik hausnarketa eta pentsamendua sortuko dira ikasketa esanguratsua izanda. | - Jürgen Habermas: Komunikazio Akzio Teoria. Pertsonok komunikatzeko gai gara eta komunikazio hori gainontzeko pertsonekin garatzen da.<br>- Paulo Freire: Pedagogia Dialogikoa. Berdinen arteko dialogoa hezkuntzaren oinarrizko tresna da. Dialogoak komunitatea barne-hartzen du, ikasketa prozesua eragiten dutelako. Hezkuntzak esperientzian oinarritu eta aldaketa soziala lortzeko bideratua izan behar du. |
| Printzipio pedagogikoak | - Esperientzia eta hausnarketa.<br>- Diziplinartekotasuna.<br>- Erabilgarritasun soziala.<br>- Bizitzarako gaitasunak.<br>- Baloreak eta solidaritatea garatzea. | - Berdinen arteko interakzio produktiboa.<br>- Adimen kulturala:<br>- Aldaketa soziala.<br>- Ezberdintasunerako berdintasuna.<br>- Solidaritatea garatzea eta estereotipoak gainditzea. |
| Estrategia metodologikoak | - Curriculumarekin lotura eta zerbitzu soziala garatzeko estrategiak<br>- Hausnarketa.<br>- Behaketa eta koebaluazioa. | - Talde interaktiboak.<br>- Liburutegi zuzenduak.<br>- Tertulia dialogikoak.<br>- Senideen prestakuntza. |
| Ikaslearen rola | Ikasketaren protagonista da bere ezagutza eraikitzen. | Ikasketa prozesu protagonista da. |
| Irakaslearen rola | Umeen aktibotasun naturala mantentzea eta zuzentzea. Zuzendari edo gida gisa arituko da. | Ikasketa prozesua zuzentzen du komunitatearen beste kide batzuen laguntzarekin. |
| Helburua | Baloreetan heztea, garapen soziala sustatzea eta ikasketa esanguratsu bihurtzea. | Ikasketa instrumentala eta garapen kognitiboa sustatzea eta komunitatearekin erlazioak hobetzea. |

---

[1] Tapia (2001), Puig et al, (2006) eta Battle (2013).
[2] Valls (2000) eta Flecha eta Puigvert (2002).

# III. Eranskina: Proiektuaren programazio didaktikoa

## 0. Sarrera

Programazio honek “Jolasa, musika eta arte: edonon eta edonoiz” proiektuaren diseinu didaktikoa jasotzen du. Proiektua I-Z metodologian oinarritzen da. I-Z proiektuetan zerbitzuak ikasketak beste garrantzia du, horregatik bien plangintza barne hartzen ditu.

Programazioa burutzeko, proiektuaren helburu nagusia: baloreak garatzea kontuan hartu dugu. Horregatik, ikasketa esperientzian, diziplinartekotasunean, kooperazioan eta batez ere, balore hezkuntzan eta konpromiso sozialean oinarritzen da, beti ere egokitu beharreko beste zenbait egoera ahaztu gabe, adibidez, hizkuntza maila, ikasleen ezaugarriak ikastetxearen antolamendua eta Lehen Hezkuntzako curriculuma.

## 1. Testuingurua

- **Ikastetxea:** Sodupeko Avellaneda Ikastetxea. Bilboko Gotzaintzako itunpeko ikastetxea da non D ereduan, hezkuntza etapa guztiak ikas daitezkeen.

- **Testuinguru sozioekonomikoa:** ikastetxeko ikasleak Gueñesekoak, Enkarterri eskualdekoak, edo inguruko beste herrietakoak (Alonsotegi, Gordexola eta Okendo) dira. Herrialdeko biztanleria gehiena maila sozioekonomiko ertainekoa da: batezbesteko errenta hamasei mila euro ingurukoa da.

- **Testuinguru psiko-kognitiboa:** proiektua ikastetxeko seigarren mailako bi taldeetan garatuko da. Guztira 48 ikasle dira, 11-13 urte bitartekoak. Bi errepikatzaile daude, bakoitza talde batean eta ez dago behar berezidun ikaslerik.

| TALDE | IKASLEAK |
|---|---|
| A | • 24 ikasle:<br>- 16 mutil (bat errepikatzailea)<br>- 8 neska |
| B | • 24 ikasle:<br>- 16 mutil (bat errepikatzailea)<br>- 8 neska |

1. taula. Taldeen osaera.

- **Arazo soziala:** proiektuak pertsona nagusien egungo errealitateari lagundu nahi dio. Gure gizartean zahartzaroak balio-galera sufritzen du eta belaunaldi arteko kontaktua gero eta murriztuagoa da. Ondorioz, adineko pertsona askok bakardadea eta baita ustezko ezereztasun sentitzen dituzte.

- **Zerbitzu soziala:** zerbitzua I-Z-aren belaunaldi arteko truke esparruan sartuko da, adineko pertsonen bakardadea eta ospe-galtzearen kontra borrokatzeko asmoarekin. Laguntza hori bi norabidetan garatuko da:
    - Dinamizazio saioak: zahar-etxean dauden adineko pertsonentzat hiru saioko emanaldi artistiko bat prestatuko da. Emanaldian jolas, kanta eta dantza batzuk antzeztuko dira.
    - Boluntarioak: emanaldia herriko beste pertsona nagusi batzuekin prestatuko da. Boluntarioek ikasleekin batera lan egingo dute.

- **Erakunde kolaboratzailea:** Gueñeseko zahar-etxea, Geriatrico Biotzak, S.A.

## 2. Gaitasunak eta helburuak

### 2.1. Gaitasunak

236/2015 Dekretuak, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen dena, ikasleek garatu beharko lituzketen oinarrizko gaitasunak zehazten ditu. Dekretuak bi multzotan bereizten ditu:

- **Oinarrizko zehar-konpetentziak edo orokorrak:** bizitzako esparru eta egoera guztietan arazoak ebazteko behar diren konpetentziak dira. Arlo edo ikasgai guztietan orotara egindako lanaren bidez sustatzen eta indartzen dira eta bizitzako esparru eta egoera guztietan integratu edo barneratu egiten dira. Honako hauek dira:
    1. Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia: hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa eta komunikazio digitala modu osagarrian erabiltzea da, komunikazio egokiak eta eraginkorrak egiteko egoera pertsonal, sozial eta akademikoetan.

2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia: ikasteko eta lan egiteko ohiturak, ikasteko estrategiak eta pentsamendu zorrotza izatea da, ikasitakoa erabili eta beste testuinguru eta egoera batzuetara transferitzea, norberaren ikaskuntza antolatzeko.
3. Elkarbizitzarako konpetentzia: pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekikotasun-irizpideekin parte hartzea da, gainerako pertsonei aitortuz nork bere buruari aitortzen dizkion eskubideak eta betebeharrak, eta horrela ekarpen bat egitea norberaren eta guztion onari.
4. Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia: ekimenez jardutea eta prozesu ekintzailea ausart eta eraginkor kudeatzea da egoera eta testuinguru pertsonal, sozial, akademiko eta lanekoetan, ideiak ekintza bihur daitezen.
5. Norbera izaten ikasteko konpetentzia: norberari bizitzako hainbat egoera eta esparrutan sortzen zaizkion sentimenduez eta pentsamenduez hausnartzea eta norberak egiten dituen ekintzez gogoeta egitea, eta, horien gainean egiten den balioespenari erreparatuta, haiek sendotzea edo doitzea.

- **Diziplina arteko oinarrizko konpetentziak edo konpetentzia espezifikoak:** bizitzako esparru eta egoera guztietan arazoak ebazteko behar diren konpetentziak dira. Diziplina-matrize bat dute oinarritzat eta arlo bakoitzaren berezko arazo-egoeren bitartez eskuratzen dira. Honako hauek dira:

6. Hizkuntza eta literatura komunikaziorako konpetentzia: hitzezko eta idatzizko testuak erabiltzea da, euskaraz, gaztelaniaz eta atzerriko hizkuntza batean, bizitzako egoera guztietan hizkuntza-errespetatuz komunikatzeko Horrekin batera, heziketa literarioa lantzean datza nork bere burua eta ingurunea hobeto ezagutzen laguntzeko.
7. Matematikarako konpetentzia: jakintza matematikoa erabiltzea da bizitzako beharrizanei dagozkien arazoak interpretatzeko, deskribatzeko, azaltzeko eta horiei erantzuteko, arloaren berezko pentsamendu eta irudikapen-moduak eta tresnak erabilita.
8. Zientziarako konpetentzia: zientziaren jakintza eta metodologia modu koherente, bidezko eta zuzen batez erabiltzea da testuinguru esanguratsuetan

sistema eta fenomeno naturalak interpretatzeko, eta aplikazio zientifiko eta teknologiko nagusiak erabiltzea

9. Teknologiarako konpetentzia: produktu eta sistema teknologikoak zentzuz erabiltzea eta garatzea da, jakintza teknikoak eta gainerako adarretako jakintzak era metodiko eta eraginkorrean aplikatu interesa duten egoerak ulertzeko eta konpontzeko.
10. Konpetentzia sozial eta zibikoak: nork bere burua, norberaren taldea eta bizi duen mundua ezagutu eta ulertzea da., gizarte-zientzien jakintzak eskuratuz, kritikoki interpretatuz eta erabiliz; zientzia horien berezko prozedurak eta metodologiak erabiltzea, gizarte demokratikoa, solidarioa, inklusiboa eta anitza lortzeko.
11. Arterako konpetentzia: hainbat kultura eta arte adierazpen ulertzea eta modu kritikoan balioestea da, denbora eta erabilera testuingurutan, faktore estetikoek pertsonen eta gizarteen bizitzan duten garrantziaz jabetzeko.
12. Konpetentzia motorra: autonomiaz, izaera kritikoz, sormenez eta adierazkortasunez lantzea norberaren, gainerako pertsonen eta ingurune fisiko eta kulturalaren jardun-eremu motorreko egoerak eta, jokabide motorra lantzen laguntzen duten jakintzak, prozedurak eta jarrerak barneratzea eta jarduera fisikoa eta kirola egiteko ohiturak hartzea

## 2.2. Helburuak

### 2.2.1. Zerbitzuaren helburuak

I-S proiektuetan, zerbitzuak eta ikasketak bere helburu propioak izan behar dituzte. Proiektu honetan, zerbitzuaren helburuak honako hauek dira:

1. Erresidentzian dauden pertsona nagusiak laguntzea.
2. Boluntario gisa proiektuan parte hartuko duten adineko pertsonak baliogarria sentitzea.
3. Belaunaldi arteko trukea sustatzea.

4. Ikasleek nagusien egoeraren aurrean sentsibilizazioa, enpatia eta solidaritatea garatzea.
5. Ikasleek gure testuinguruan dauden behar sozialak ikustea eta horiek laguntzeko jarrera positiboa eta aktiboa garatzea.
6. Ikasleek agureen eta atsoen figura errespetatzea eta balioestea.

### 2.2.2. Ikasketaren helburuak

Proiektuaren ikasketaren helburuak 236/2015 Hezkuntza Dekretuak ezartzen dituen irizpideetan oinarritzen dira:

1. Historiako etapa bakoitzaren datazioak eta ezaugarri nagusiak ezberdintzea eta etapa bakoitzeko gertaera eta korronte artistiko eta musikal garrantzitsuenak aztertzea, ulertzea eta ohartzea, aldaketei buruzko iritzi pertsonal eta kritikoa eratzeko.
2. Ingurune fisiko, sozial, historiko eta kulturaleko gertaerak, kontzeptuak eta prozesuak zenbakizko kode bidez, kode grafiko bidez eta kode kartografiko bidez ulertzea eta adieraztea.
3. Europar Batasunaren lurralde-antolaketa nolakoa den eta zer erakundek osatzen dituzten jakitea, baita bere geografia fisikoaren ezaugarriak, arazo nagusiak, eta kultura, gizarte eta hizkuntza-aniztasuna ezagutzea, aintzat hartzeko eta desberdintasunak errespetatzeko.
4. Egungo, antzinako eta beste kultura batzuetako jolas eta kirol tradizioak, adierazpen artistiko eta musikalak eta euren eragina eta garrantzia ezagutzea, balioestea eta babesteko jarrera garatzea, haien trukatzeak denok aberasten gaituela onartuz.
5. Gorputzak eta mugimenduak, arteak eta musikak norberaren ideiak, sentimenduak eta bizipenak modu estetiko eta sortzailean komunikatzeko eta espresatzeko ematen dituzten aukera ugariak onartzea.
6. Arte, musika edo jolas-jarduera kolektiboetan parte hartzea, jarduera horietan norberak arduraz eta konfiantzaz jokatzea, gozatzea eta denen ekarpenak balioestea,

kooperazio-trebetasunak lantzeko eta sentimenduen eta gorputz komunikazio gaitasuna hobetzeko.

7. Hizkuntzaren bitartez sortutako ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko diskurtsoak ulertzea eta interpretatzea eta egoeraren arabera eta ahoz zein idatziz komunikatzeko gai izatea.
8. Hizkuntzen erabilerari eta arauei buruz gogoeta egitea, eta horiek aplikatzea, testuak ulertzeko, idazteko eta komunikatzeko.
9. Talde-lanean jardutea, arduraz, elkarlanean, elkartasunez, printzipio demokratikoetan eta besteen ekarpenak balioestean oinarrituz, komunitateari elkartasunez ekarpenak egiteko.
10. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu kritiko, autonomo, kooperatibo eta arduratsua erabiltzea informazioa bilatzeko, informazioa eta ezagutzak komunikatzeko eta adierazpen artistikoak sortzeko.
11. Herritarrak antolatzeko eta gizartean parte hartzeko zer modu dauden jakitea, eta ingurune hurbila zaintzeko eta parte hartzeko jarrera solidario eta arduratsua garatzea.
12. Nork bere balio-sistema eta nortasuna eratzea, eta norberaren ahalegina eta hobetzeko nahia sustatzen duten estrategiak bultzatzea, gizaki autonomo, arduratsu eta sozial moduan garatzeko, gainerakoekin solidaritatea, enpatia, errespetua, maitasuna eta lankidetza sustatuz.
13. Ezaugarri bereizgarriak dituzten gizarte, garai eta kultura-taldeetako kide direla ohartzea, gainerako gizarte, garai eta kulturen kideak errespetatzea eta balioestea, aniztasuna eta berdintasuna sustatuz.
14. Adineko pertsonen arazo eta sentimenduez kontzientzia hartzea eta beraiek errespetatzea euren esperientzia eta ezagutzak balioetsiz.

## 3. Edukiak

Aurreko helburuak lortzeko erabiliko diren edukiak honako hauek dira:

- **Kontzeptualak**

1. Europa: geografia fisiko eta politikoko elementu eta klima nagusiak.
2. Europar Batasunaren historia, arazo nagusiak, jolas, kirol, ohitura eta adierazpen artistiko eta musikal nagusiak.
3. Europar Batasuneko, Estatuko, Autonomia-erkidegoko eta herriko erakundeak.
4. Historiaren datak eta garaiak zehazteko arauak.
5. Garai historikoetako (Historiaurrea, Aro Klasikoa, Erdi Aroa, Berpizkundea, Aro Modernoa eta Aro Garaikidea) gertakari, ezaugarri, pertsonai eta bizimodu nagusiak.
6. Euskal Herriaren iraganeko eta egungo ohiturak,, jolasak, kirolak eta Herri Kirolak.
7. Musikaren historia: korronteak, tresnak, egile nagusiak, musika-emanaldiak eta erabilerak.
8. Artearen historia: garai historiko bakoitzaren arte korronte adierazgarrienak.
9. Egile eskubideak.

- **Prozedurazkoak**

10. Arte-lanak eta musika adierazpenak bere estiloan eta garaian kokatu.
11. Antzinako, oraingo eta Europako musikaren dantza, kanta eta jolasen taldeko antzerkia eta atrezzo egokia diseinatu.
12. Teknologia berriak erabiliz, landutako gaiari buruzko txostena eta aurkezpena idatzi.
13. Osagai grafikoen (eskemak, grafikoak, ardatz kronologikoak, etab.) eta paratestuen (paragrafoak, izenburuak, zenbakiak, etab.) erabilera.
14. Taldeko lanean, taldekide bakoitzak bere rola interpretatu.
15. Euskarri teknologikoak era arduratsu, ausart eta originalean erabili, informazioa komunikaziorako eta arte-sorkuntzarako.
16. Informazioa kritikotasunez aztertu.
17. Informazioa aurkitzeko eta irakurtzeko estrategiak: ideia nagusiak, bigarren mailakoak eta baliorik gabekoak, elementu linguistikoak eta ez linguistikoak (testuen banaketa, tipografia, indizeak, etab.).

- **Jarrerazkoak**

18. Jolasa, kirola, musika eta artea gizarte eta kultura ondaretzat eta fenomenotzat hartu, haien jarduerak edozein garaitan gozamenerako, sentimenduak adierazteko eta komunikatzeko baliabidetzat hartu.
19. Norberaren eta gainerako pertsonen iritziak, lana eta ekarpenak balioetsi eta onartu.
20. Diskriminazio ereduarekiko jarrera kritikoa izan.
21. Solidaritatea, konpromiso soziala eta besteekiko enpatia.
22. Estereotipoak gainditu, batez ere belaunaldien artean.
23. Esfortzuzko eta konfiantzazko jarrera aktiboa, parte-hartzailea positiboa eta arduratsua izan.
24. Egile eskubideak errespetatu.

## 4. Sekuentzia eta denboraren antolaketa

Proiektuaren helburuak lortzeko arestian aipatutako eduki guztiak landuko dira. Eduki horiek guztiak ez dira hasieratik landuko, baizik eta sekuentzia batean. Gure asmoa da ikasleek proiektuaren muina eta antolamendua jakitea gai teorikoak eta zerbitzua prestatu baino lehen. Horregatik, proiektua lau fase ezberdinetan garatuko da:

1. Fasea: sentsibilizazioa: arazoarekin kontzientzia hartzea.
2. Fasea: prestaketa: emanaldia garatzeko beharrezkoak diren ikerketa teorikoa, diseinua eta entseguak.
3. Fasea: zerbitzua ematea: emanaldi artistikoa antzeztea.
4. Fasea: festa: proiektua ospatzeko festa bat antolatuko da ikastetxean parte-hartzaile guztioi eskerrak emateko, hausnarketa egiteko eta familiei komunikatzeko.

Proiektuaren antolamendu hori jarraitzeko jarduera batzuk prestatu dira, honako multzoetan sailka daitezkeenak:

- Aurreiritziak eta aurreko ezagutzak lantzeko: landuko diren gaiei buruzko aurrezagutzak eta aurreiritziak jakiteko eta pixkanaka apurtzeko erabiliko dira.
- Sentsibilizaziozkoak: landuko dugun behar sozialarekin lehenengo kontaktua izateko eta arazoaz kontzientzia hartzeko.

- <u>Ikasketazkoak:</u> proiektuaren ikasketa helburuak lortzeko landuko dira. Jarduera horietan finkatutako edukiak landuko dira eta ebaluazioaren zati handia izango dira.
- <u>Zerbitzuzkoak</u>: zerbitzu soziala prestatzeko eta garatzeko egingo diren jarduerak dira. Zerbitzuaren diseinua, erabiliko diren materialak eta atrezzo-a erabaki eta prestatzeko eta zerbitzua bera entseatzeko eta emateko saioak dira.
- <u>Hausnarketazkoak:</u> proiektuan zehar egingo dira eta horri buruzko hausnarketa egiteko erabiliko dira. Modu horretan egiten ari garena zuzendu ahal izango dugu eta gure sentimenduak eta iritziak partekatuko ditugu gure artean, beti ere proiektua hobetzeko asmoarekin.
- <u>Komunikaziozkoak eta proiektua ospatzekoak</u>: proiektuaren festa prestatzeko erabiliko direnak.
- <u>Ebaluaziozkoak:</u> ikasketa, zerbitzua, proiektu bera eta parte hartu dugunok ebaluatzeko.

Jarduera horiek guztiek sekuentzia bat jarraituko dute proiektuaren bai ikasketa eta zerbitzua, bai bere komunikazioa eta ebaluazioa modu egokian garatzeko. Proiektua garatzeko 455 ordu izango ditugu, hamaika asteetan banatuta, hots, 4,5 ordu astero. Ordu kopuru hori jarraituz jarduerak astero antolatuko dira haien helburu nagusiaren arabera. Hurrengo taulan proiektuaren sekuentzia jasotzen da:

| Astea / Jarduera | 1.go astea | 2. astea. | 3. astea | 4. astea | 5. astea | 6. astea | 7. astea | 8. astea | 9. astea | 10. astea | 11. astea |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Aurreir. | ■ | | | | | | | | | | |
| Sentsib. | | ■ | | | | | | | | | |
| Ikasketa | | | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | | | |
| Zerbitzua | | | | | | | ■ | ■ | ■ | ■ | |
| Hausnark. | | ■ | | | | | | | | ■ | |
| Komunik. | | | | | | | | | | | ■ |
| Ebaluazioa | | | | | | | | | | ■ | ■ |

2. taula. Proiektuaren sekuentzia kronologikoa

Hurrengo taulan jarduera mota bakoitzaren barruan egindako jarduerak jasotzen dira. Jarduera bakoitzaren fitxak programazio honen amaieran daude. Jardueren izenburuak kronologikoki agertzen dira:

| MOTA | JARDUERAK | EDUKIAK | HELBURUAK | GAITASUNAK |
|---|---|---|---|---|
| AURREIRITZIAK ETA AURREZAGUTZAK | "Nire pasaportea" | 15,19 | 12 | 1,2,5,9 |
| | "Bai ala ez" | 15,19 | 12,14 | 1,2,3,5,9,10 |
| | "Nork entzungo luke?" | 7,10 | 4,5 | 2,3,5,10,11 |
| | "Sentitzen dudana margotzen" | 8 | 4,5,7,13 | 2,4,5,11 |
| | "Kholberg dilema" | 16,17,21,22,23 | 7,9,12,14 | 1,2,3,5,6,9,10 |
| | "Globo aerostatikoaren dilema" | 16,17,21,22,23 | 7,9,12,14 | 1,2,3,5,6,9,10 |
| | "Erlaxazioa eta konfidantza" | 19,20,21,23 | 6,9 | 2,3,5,10,12 |
| SENTSIBILIZ AZIOA | "Agure erbesteratuak" | 17,20,21,22 | 7,8,12,14 | 1,2,3,6,10 |
| | "Arrugas" | 17,19,20,21,22,23 | 7,8,9,11,12,13,14 | 1,2,3,6,10 |
| | "Agure/atsoa izango banintz" | 20,21,22 | 12,13,14 | 2,3,5,10,12 |
| | "Guztiok bezala?" | 17,20,21,22 | 5,7,12,14 | 1,2,3,10 |
| | "Zer egin dezakegu?" | 9 | 9,12,13,14 | 1,2,3,4,6,10 |
| IKASTEKOAK | "Gure taldea" | 14,19,20,21 | 7,10,11,12 | 1,2,3,4,6,9 |
| | "Ikertzaileak" | 1,2,3,4,5,6,7,8,9,10,12,13,14,15,16, 17,18,19,23,24 | 1,2,3,4,5,7,8,9,10,11,12,13,14 | 1,2,3,4,5,6,9,10, |
| | "Irakasleak" | 1,2,3,4,5,6,7,8,9,10,12,15,18,19,23 | 1,2,3,4,5,7,8,9,10,11,12,13,14 | 1,2,3,4,5,6,9,10 |
| HAUS. | "Zer eta zertarako ikasi dut?" | 19,20,21,22,23 | 5,7,9,12 | 1,2,3,4,5,6,10 |
| EBAL. | "Proiektuaren quiz-a" | 1,2,3,4,5,6,7,8,9 | 7,10 | 2 |
| ZERBITZUKOAK | "Antzerkia aukeratuz" | 1,2,3,5,6,7,8,11,14,15 | 1,3,4,5,6,9,10,12 | 1,2,3,4,10,11,12 |
| | "Entseguak" | 1,2,3,,5,6,7,8,11 | 1,3,4,5,6,9,10,12 | 2,3,4,5,10,11,12 |
| | "Atrezzo-a diseinatuz" | 3,8,11 | 1,3,4,5,6,9,12 | 2,4,11 |
| | "Entsegu orokorra" | 1,2,3,5,6,7,8 | 1,3,4,5,6,9,10,12 | 1,3,6,10,12 |
| | "Emanaldi artistikoa" | 1,2,3,5,6,7,8 | 1,3,4,5,6,9,10,12,13,14 | 1,2,3,4,5,6,10,11,12 |
| HAUS. | "Nola sentitu naiz?" | 19,20,21, | 7,12,14 | 1,2,5,6 |
| KOM. | "Festa prestatzen" | 13,14,15,19,20,21 6,19,20,21,23 | 7,9,10,11,12,14 | 1,2,3,4,6,9,10,11 |
| | "Gure proiektua ospatzen" | 15, | 7,9,10,11,12,14 | 1,2,3,6,10 |
| HAUS. | "Azken hausnarketa" | 18,19,20,21,22,23 | 1,3,4,5,7,9,12,14 | 1,2,3,4,5,6,10 |
| EBAL. | "Esperientzia ebaluatuz" | 15,23 | 10,12 | 2,4,5,9 |

3. Taula. Jarduerak eta haietan lantzen diren edukiak, helburuak eta gaitsunak.

# 5. Ebaluazioa

## 5.1. Zerbitzuaren ebaluazioa

### 5.1.1. Zerbitzuaren ebaluazio irizpideak

Zerbitzuaren helburuak lortu diren jakiteko hurrengo irizpideak finkatuko ditugu:

1. Ea erresidentzian dauden adineko pertsonei lagundu zaien.
2. Ea boluntario gisa proiektuan parte hartuko duten adineko pertsonak baliogarria sentitu diren.
3. Ea belaunaldi arteko trukea sustatu den.
4. Ea ikasleek nagusien egoeraren aurrean sentsibilizazioa, enpatia eta solidaritatea garatu dituzten.
5. Ea ikasleek gure testuinguruan dauden behar sozialak ikusi dituzten eta horiek laguntzeko jarrera positiboa eta aktiboa garatu dituzten.
6. Ea ikasleek agureen eta atsoen figura errespetatu eta balioetsi duten.

### 5.1.2. Zerbitzua ebaluatzeko tresnak

Zerbitzuaren ebaluazioa egiteko tresnak helburuaren arabera honako hauek izango dira:

- <u>Behaketa:</u> proiektuan zehar eta emanaldiaren egunetan ikasleen eta adineko pertsonen jarrera eta sentimenduak jasotzeko (1,2,3,4,5,6).
- <u>Hausnartzeko saioa:</u> proiektua amaitu ondoren saio bat erabiliko da proiektuari buruz hausnartzeko eta zerbitzuari dagokionez ikasleen iritziak eta ideiak jasoko dira (1,2,3,4,5,6).
- <u>Galdetegia:</u> proiektua amaitu ondoren eta helburuak lortu diren egiaztatzeko asmoarekin galdetegi ezberdinak egingo zaie:
  - Ikasleei: haien iritzia eta ebaluazioa jasotzeko (4,5,6).
  - Erakundearen zuzendariari: erakundearen iritzia jakiteko (1,3,6).
  - Adineko pertsonei: haien iritzia eta sentimenduak ezagutzeko (1,2).

Lehenengo bi kasuetan galdetegiak *Google Form* programaren bidez egingo dira. Hirugarren kasuan aldiz, galdetegia informala izango da eta adineko pertsonen iritzia ahoz jasoko da eta behaketaren orrian erregistratuko da. Galdetegiak eta behaketa orria programazioaren amaieran ikus daitezke.

### 5.1.3. Zerbitzuaren kalifikazio irizpideak

Helburuen lorpenaren arabera zerbitzuaren onurak eta balioa neurtuko ditugu. Hau da, ea ikasleentzat eta zerbitzua jasotzen dutenentzat onuragarria izan den. Beraz, kalifikazioa zerbitzuarena izango da. Irizpideak hurrengo taulan jasoko dira:

| IRIZPIDEA | KALIFIKAZIOA |
|---|---|
| Jasotako erantzunen %50 baino altuagoa negatiboa bada. | Baliogabekoa |
| Jasotako erantzun positiboen kopurua %50-60koa bada. | Nahiko baliagarria |
| Jasotako erantzun positiboen kopurua %60-80koa bada. | Baliagarria |
| Jasotako erantzun positiboen kopurua %80 baino altuagoa bada. | Oso Baliagarria |

4. Taula. Kalifikazio irizpideak.

## 5.2. Ikasketaren ebaluazioa

### 5.2.1. Ikasketaren ebaluazio irizpideak

Ikasketaren ebaluazioak finkatutako helburuen lorpena neurtuko du. Horregatik ebaluazio irizpideak honako hauek izango dira:

1. Ea historiako etapa bakoitzaren datazioak eta ezaugarri nagusiak ezberdintzen dituen eta etapa bakoitzeko gertaera eta korronte artistiko eta musikal garrantzitsuenak aztertzen, ulertzen eta ohartzen dituen, aldaketei buruzko iritzi pertsonal eta kritikoa eratzeko.

2. Ea ingurune fisiko, sozial, historiko eta kulturaleko gertaerak, kontzeptuak eta prozesuak zenbakizko kode bidez, kode grafiko bidez eta kode kartografiko bidez ulertzen eta adierazten dituen.

3. Ea Europar Batasunaren lurralde-antolaketa nolakoa den eta zer erakundek osatzen dituzten dakizkien, baita bere geografia fisikoaren ezaugarriak, arazo nagusiak, eta

kultura, gizarte eta hizkuntza-aniztasuna ezagutzea, aintzat hartzeko eta desberdintasunak errespetatzeko.

4. Ea egungo, antzinako eta beste kultura batzuetako jolas eta kirol tradizioak, adierazpen artistiko eta musikalak eta euren eragina eta garrantzia ezagutzen, balioesten eta babesteko jarrera garatzen dituen, haien trukatzeak denok aberasten gaituela onartuz.
5. Ea gorputzak eta mugimenduak, arteak eta musikak norberaren ideiak, sentimenduak eta bizipenak modu estetiko eta sortzailean komunikatzeko eta espresatzeko ematen dituzten aukera ugariak onartzen dituen.
6. Ea arte, musika edo jolas-jarduera kolektiboetan parte hartzen duen, jarduera horietan norberak arduraz eta konfiantzaz jokatzen eta gozatzen duen eta denen ekarpenak balioesten dituen, kooperazio-trebetasunak lantzeko eta sentimenduen eta gorputz komunikazio gaitasuna hobetzeko.
7. Ea hizkuntzaren bitartez sortutako ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko diskurtsoak ulertzen eta interpretatzen dituen eta egoeraren arabera eta ahoz zein idatziz komunikatzeko gai den.
8. Ea hizkuntzen erabilerari eta arauei buruz gogoeta egiten duen, eta horiek aplikatzen dituen, testuak ulertzeko, idazteko eta komunikatzeko.
9. Ea talde-lanean jarduten duen, arduraz, elkarlanean, elkartasunez, printzipio demokratikoetan eta besteen ekarpenak balioestean oinarrituz, komunitateari elkartasunez ekarpenak egiteko.
10. Ea informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu kritiko, autonomo, kooperatibo eta arduratsua erabiltzen dituen informazioa bilatzeko, informazioa eta ezagutzak komunikatzeko eta adierazpen artistikoak sortzeko.
11. Ea herritarrak antolatzeko eta gizartean parte hartzeko zer modu dauden dakizkien, eta ingurune hurbila zaintzeko eta parte hartzeko jarrera solidario eta arduratsua garatzen duen.

12. Ea nork bere balio-sistema eta nortasuna eratzen dituen, eta norberaren ahalegina eta hobetzeko nahia sustatzen duten estrategiak bultzatzea, gizaki autonomo, arduratsu eta sozial moduan garatzeko, gainerakoekin solidaritatea, enpatia, errespetua, maitasuna eta lankidetza sustatuz.
13. Ea ezaugarri bereizgarriak dituzten gizarte, garai eta kultura-taldeetako kide direla ohartzen duen, gainerako gizarte, garai eta kulturen kideak errespetatzen eta balioesten dituen, aniztasuna eta berdintasuna sustatuz.
14. Ea adineko pertsonen arazo eta sentimenduez kontzientzia hartzen duen eta beraiek errespetatzen dituen euren esperientzia eta ezagutzak balioetsiz.

### 5.2.2. Ikasketaren ebaluazio tresnak

Ebaluazioak, helburuen lorpena neurtzeaz gain, ikasketa prozesuari laguntzeko, irakaslearen lana zuzentzeko eta proiektua hobetzeko balio behar du. Ondorioz, ebaluazioa ezin da ekintza puntualtzat jo, baizik eta era jarraian garatu behar da. Horrela, irakasleak ikasketa prozesuaren informazioa bilduko du eta horri esker erabilitako metodologia, jarduerak eta prozesua egokitu ahal izango ditu. Horrenbestez, ebaluazio prozesua hurrengoa izango da:

- Hasierako ebaluazioa: bere helburua ikasleen hasierako maila jakitea da. Horrela, haien aurreko ezagutzak eta aurre-iritziak abiapuntutzat hartuko dira ikasketa prozesu osoa baloratu ahal izateko.

*Tresna:* proiektua hasi baino lehen ikasleak ez ditugu ezagutuko. Horregatik, euren ezagutzei buruzko informazioa lortuko da tutoreengandik. Gainera, lehenengo saioetan ikasleengandik ere informazio hori lortuko da eta lehenengo hiru saioetan jasotako iritziak eta erantzunak bilduko dira.

- Ebaluazio jarraitua eta formatiboa: ikasketa prozesua garatzen ari den modua ezagutzeko balio du. Ikasleek landutako eduki guztiak barneratzeko gaitasuna ebaluatuko da. Hau da, ebaluazio irizpide bakoitzerako ikasle bakoitzari ebaluazio bat ezarriko zaio, helburu horren lorpen-mailaren araberakoa.

*Tresnak:* bi tresna erabiliko dira:

- Behaketa: taldeak eta ikasleak behatuko dira jarduera eta ekintza ezberdinak burutzean . Taldearen eta ikasle bakoitzaren jarrera eta lan prozesua eta ikasle bakoitzaren rola eta parte-hartzea behatuko da. Datuak biltzeko behaketa erregistro orriak (72.-74. orrietan) erabiliko dira.
- Proiektuan zehar egindako lanak: proiektuaren txosten, idazlan, margo-lan, aurkezpen, garatutako jarduera eta antzerki guztiak ebaluazio-tresna bezala erabiliko dira. Lan bakoitzean edukia, zuzentasuna (gramatika eta hiztegi aldetik), originaltasuna (ekintza, aurkezpen eta tresna digital ezberdinen erabilera) eta egokitasuna (ideien ordena, antolaketa, paragrafoak eta aurkezpena) kontuan hartuko dira ere.

- Amaierako ebaluazioa: taldea hain handia denez, ikasle bakoitzaren proiektuan zehar ikasketa prozesua ziurtatzeko erabiliko da eta helburuen lorpen-maila, bai indibidualki bai taldeka neurtzeko balioko du.

*Tresna:* item itxien galdetegia erabiliko da. Galdetegia *Google form* programaren bidez egingo da eta ikasleek haien ipad-ak erabiliko dituzte erantzuteko. (67. orrian).

- Auto-ebaluazioa: ikasle bakoitzak bere burua ere ebaluatuko du. Horrela bere iritzia ere kontutan hartuko da eta autokritika eta ardura garatuko ditu.

*Tresna:* item itxien galdetegia erabiliko da. Proiektua amaitu bezain laster ikasleek galdetegia *Google Form* programaren bidez egingo dute. (75. orrian).

- Ko-ebaluazioa: ikasleek taldeko lana eta bere taldekideak ere ebaluatu ahal izango dituzte. Ebaluazioaren helburua da haien ikasketa kooperatiboa eta berriro ere haien autokritika eta ardura indartzea.

*Tresna:* arestian aipatutako galdetegi bera erabiliko da. Galdetegian ikasleek taldekideen, proiektuaren arduradunaren, erakundearen eta proiektuaren ebaluazioa egingo dituzte.

- Irakasle lanaren ebaluazioa: erabilitako metodologia, jarduerak eta denborak eta emandako azalpenak eta laguntza ebaluatuko dira hobetzeko asmoarekin.

*Tresna:* proiektua amaitu ondoren ikasleen iritzia jasoko da aurreko puntuan azaldutako prozedura beraren bitartez.

### 5.2.3. Ikasketaren kalifikazio irizpideak

Arestian esan bezala, behaketa, egindako lan guztiak eta azkeneko galdetegia izango dira proiektuaren ikasketaren ebaluaketa tresnak. Kasu guztietan 1-tik 10-erako balorazio eskala ezarriko da (1 txikiena eta 10 handiena izanda) jasotako datuak neurtzeko. Hots, helburuak bikain, oso ondo, ondo, nahiko edo lortzen ez diren neurtuko da.

Horren ostean, kalifikazio guztiak batu eta ikasleek lorturiko azken kalifikazioaren kalkulua egingo da. Proiektuaren azken kalifikazioa horrela kalkulatuko da:

- Irakaslearen ebaluazioa: %80
- Auto-ebaluazioa: %10
- Taldeko ebaluazioa: %10

Irakaslearen ebaluazioari dagokionez, hurrengo taulan azken kalifikazioa kalkulatzeko erabiliko diren epigrafe guztiak jasotzen dira:

| **BAKARKAKO LANAK** | | **TALDEKO LANAK** | | **JARRERA** | |
|---|---|---|---|---|---|
| Margolanak | %10 | Txostena | %30 | Rol-funtzioak | %20 |
| Irakurmen fitxa | %10 | Aurkezpenak | %30 | Parte-hartzea | %30 |
| Filmaren fitxa | %10 | Zerb. Antzerkia | %30 | Esfortzua | %30 |
| Azken idazmena | %10 | Kartelak | %10 | Errespetua | %20 |
| Azken quiz-a | %50 | | | | |
| | %100 | | %100 | | %100 |
| | *0.4 | | *0.4 | | *0.2 |
| **GUZTIRA** | **%40** | **GUZTIRA** | **%40** | **GUZTIRA** | **%20** |

5. taula: Irakasleen ebaluazioa.

Azkenik, arestian aipatu den moduan, elkartearen, proiektuaren eta gure ebaluazioa, galdetegi baten bidez egingo dira. Galdera gehienetan erantzunak itxiak izango dira, 1-etik 5-erako puntuazioarekin. Erantzun horiekin batez bestekoa egingo da baina aspektu guztiak kontutan hartuko dira. Galdetegian galdera irekiak ere egongo dira. Horien bidez,

ikasleek gehien izendaturiko ekimenekin, zerrenda bat egingo dugu, zeintzuk izan diren jakiteko eta ondorioz hobekuntza planak hurrengorako sortzeko.

## 6. Metodologia

Proiektuaren metodologiak ikasketa eta zerbitzuaren helburuak lortzeko bideratuta daude, balore garapenari lehentasuna emanez. Horregatik, konbinatzen diren metodologiak ikasleen praktikotasunean, kooperatibismoan eta errealitatearekin konexioan oinarritzen dira.

### 6.1. Oinarri metodologikoak

Proiektuaren metodologietan ikasleek dute protagonismoa, haien ikasketa esanguratsu bihurtzeko eta haien motibazioa eta hausnarketa ziurtatzeko asmoekin. Erabiliko diren metodologiak honako hauek izango dira:

1. <u>Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa:</u> metodologia markoa da proiektu bera metodologia horretan oinarritzen delako. Metodologia baloreen garapenean oinarritzen da proiektu solidario baten bitartez. Hau da, eduki teorikoak ikasteaz gain, ikasketa prozesuak enpatia, solidaritatea edo konpromiso sozialaren antzeko baloreak garatzen laguntzea helburutzat du. Kasu honetan, garatuko den zerbitzu solidarioa adineko pertsonen akonpainamendua izango da.

2. <u>Ikasketa dialogikoa:</u> proiektuan zehar metodologia horrekin ere lan egingo dugu. Metodologia ikasketa kooperatiboa eta boluntarioen presentzia konbinatzean datza. Talde kooperatiboak sortzen dira talde-kide bat pertsona heldua eta boluntarioa delarik. Gure kasuan, ikasleak taldeka arituko dira, 4-6 pertsonako taldeetan. Taldekide bakoitzak bere rola eta funtzioak izango ditu eta guztion artean egokitutako gaia landuko dute. Prozesuan zehar adineko pertsona baten laguntza izango dute, boluntario gisa. Pertsona horren eginkizuna laguntza eta ideiak ematea izango da, baina erabakiak eta antolakuntza ikasleena izango da.

### 6.2. Antolamendua eta taldekatzea

Proiektuaren garapena ikasleen eta ikastetxearen beharren eta arazoen arabera egokitu da. Dena dela, orokorrean jorratutako antolamendua hau izango da:

- Ikasleen aurreiritziak eta aurrezagutzak jakin ondoren adineko pertsonek egun aurre egin behar dituzten erronkak azalduko zaizkie umeei. Horretarako teknologia berriak erabiliko ditugu.
- Behin arazo soziala identifikatuta taldeekin lehenengo hausnarketa egingo dugu ea guk nola jokatu dezakegun jakiteko. Hau da, umeek jakitea haiek ere gizartean parte hartu dezaketela inguruko arazoak konpontzen saiatuz da benetako asmoa. Hausnarketa hori amaitu ondoren proiektuaren planteamendua azalduko da haien iritzia eta ideiak jasotzeko.
- Zerbitzua prestatzeko, hasieran, gai teoriko batzuk ikertuko dira. Talde bakoitzak gai bat ikertuko du eta beste taldeei irakatsiko die. Horretarako arestian aipatutako taldeak sortuko ditugu. Taldeak heterogeneoak izango dira eta nesken eta mutilen presentzia ziurtatzeaz gain, ikasleen garapen kognitibo, sozial eta emozional ezberdinak kontuan izango dira. Taldekide bakoitzak rol bat izango du rolak honako hauek izanda:
    - Koordinatzailea
    - Idazkaria
    - Bozeramailea
    - Euskara arduraduna
    - Baliabide arduraduna

Hurrengo taulan azaltzen den moduan, talde bakoitzak gai teoriko bat eta antzeztuko den produktua: jolas, kanta ala dantza egokituta izango du.

| TALDEA | GAI TEORIKOA | PRODUKTUA |
|---|---|---|
| 1 | Musikaren historia | Antzinako kantak |
| 2 | Historia: aroak eta jolasak | Antzinako jolasak |
| 3 | Artearen historia | Antzinako dantzak |
| 4 | Europar Batasuna: geografia | Europar Batasuneko jolasak |
| 5 | EB: erakundeak eta arazoak | Europar Batasuneko kantak |
| 6 | EB: jolasak eta ohiturak | Europar Batasuneko jolasak |
| 7 | EB: arte eta musika estiloak | Europar Batasuneko dantzak |
| 8 | Europar Batasuna: historia | Oraingo kantak |
| 9 | Oraingo kirol eta jolas nagusiak | Oraingo jolasak |
| 10 | Oraingo musika estilo nagusiak | Oraingo dantzak |

*6. taula. Proiektuaren gai teorikoak eta produktuak.*

- *Google-Drive* plataforma izango da proiektuaren zutabe teknologikoa. Ikasle eta irakasle guztientzako karpeta partekatua sortuko da proiektuaren aurrerapenak, dokumentuak eta materialak gordetzeko. Talde bakoitzak bere azpi-karpeta sortuko du karpeta orokorrean eta bere barruan egin beharko dituen txostena, taldeko fitxa, aurkezpena, eta beste material batzuk aurkitu ahal izango dira.
- Gai teorikoak ikertu ondoren haien azalpenekin hasiko gara. Horretarako bi talde astero elkartuko dira. Aldi berean emanaldia prestatzen hasiko gara. Talde bakoitzak bere produktua diseinatu eta entsaiatuko du.
- Gai teorikoekin amaitu ondoren hausnarketa eta ebaluazio saio bat egingo da.
- Gauza bera egingo da zerbitzua egin ondoren. Helburua ikasleen sentimenduak eta iritziak jakitea eta hurrengo proiektu baterako hobekuntzako proposamenak jasotzea da.
- Azkenik, zerbitzua ospatuko da festa baten bitartez. Festa ikastetxean egingo da eta horretan parte-hartzeagatik diplomak emango zaizkie ikasleei. Festaren amaieran azken ebaluazioa eta hausnarketa globalak egingo dira.

## 7. Material eta baliabide didaktikoak

Proiektuak ez du erreferentziazko materialik, baizik eta ikasleek beraiek garatuko dute material gehiena. Seigarren mailako ikasleek ipad-ean oinarritutako ikasketa prozesua

jarraitzen dutenez gero, erabiliko diren material eta baliabide gehienak digitalak izango dira eta oso material fisiko gutxi erabiliko da. Modu berean, sortutako material hori, irakasleak sortutako *Google Drive* plataformaren karpeta batean eskegiko da. Talde bakoitzak garatutako materiala bere karpetan eskegiko du eta irakasleak berak sortutako materialak eta azken txostena karpeta orokorrean eskegiko ditu.

- **Materialak:**
    - Ikasleek sortutako txostenak.
    - Ikasleek eta irakasleek sortutako aurkezpenak.
    - Ikasleek sortutako idazlanak.
    - Ikasleek sortutako hormako ardatz kronologikoa.
    - Ikasleek bildutako argazkiak.
    - Ikasleek festarako sortutako bideoa eta kartelak.

- **Baliabideak:**
    - Irakasleen ordenagailu portatilak eta ipad-ak, vileda arbela, kanioia, *Apple TV* programa eta geletako kristalezko hormak.
    - Ikastetxeko areto nagusia eta gimnasio
    - *Google Drive* plataforma; irakasleak sortutako aurkezpenak ikasleekin konpartitzeko eta taldeko lanak egiteko eta komunikatzeko.
    - Youtube web gunea musika bideo batzuk ikusteko.
    - "Arrugas" filma.
    - *Google Slides, Emaze* eta *KeyNote* aurkezpenak egiteko programak.
    - *Kahoot, crucigramaonline* eta *sopadeletrasonline* web guneak.
    - *Movie maker* programa.
    - Ikasleek jolasak antzezteko bildutako materialak.
    - Zahar-etxeko areto nagusia, soinu sistema eta ordenagailu bat.

## 8. Aniztasunari arreta

Proiektu honen helburuak ikasle guztien beharrei erantzutea izan behar du, ikasleen garapen maila, gaitasun, abilezi eta nortasun ezberdinak dituztela kontuan hartuz.

Horrenbestez, ikasle bakoitzak bere ikasteko erritmoa eta prozedura duela abiapuntutzat hartuko dugu. Beraz, nahiz eta taldean behar berezidun ikaslerik ez egon, proiektuak aniztasunari erantzun beharko dio:

- Diagnostiko jarduerak: horien bidez ikasle bakoitzaren abiapuntua ezagutuko da.
- Taldekatze heterogeneoa: trebetasun, garapen eta abilezi ezberdineko ikasleez osatuta egonda, taldekideen laguntza eta sinergiak bultzatuko dituzte.
- Errefortzu jarduerak eta azalpenak: beharrezkoa izango den kasuetan, laguntza eta arreta berezia emango dizkiegu ikasleei.
- Handipen jarduerak: helburuak oso erraz lortuko dituztenei edo landutako gaiak sakondu nahi dutenei zuzendutakoak.

## 9. Proiektuaren aurrekontua

Zerbitzua prestatzeko kostu batzuk izango ditugu. Kostu horiek minimoak izatea saiatu gara. Hurrengo taulan zerbitzuaren koste globala jasotzen da epigrafe guztiak banakatuz:

| EPIGRAFEA | KOSTEA | AZALPENA | ORDAINTZAILEA |
|---|---|---|---|
| Festarako kartulinak | 5 € | 10* 0,5€ | Ikastetxea |
| Fotokopiak | 10 € | ± 50*0,2€ | Ikastetxea |
| Tren-txartelak | 104 € | 52 bidaiariak *2€ | Ikasleak, 2€ bakoitza |
| **GUZTIRA** | **119** | | |

*7. Taula: Proiektuaren aurrekontua*

## 10. Bibliografia

236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena, 2016ko urriaren 2an http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri_2020/eu_2_proyec/adjuntos/OH_curriculum_osoa.pdf -tik berreskuratua.

Avellaneda Ikastetxea (2016). *6. mailako programazio laburrak*. 2016-2017 kurtsoa.

## 11. Jarduerak

| JARDUERA | NIRE PASAPORTEA |
|---|---|
| HELBURUAK | - Bakoitzak bere burua ezagutzea eta aurkeztea.<br>- Taldeko kohesioa garatzea.<br>- Umeen baloreak ezagutzea. |
| EDUKIAK | - Geure eta kideen burua ezagutu eta aurkeztu.<br>- Geure zaletasun eta ezaugarri nagusiak identifikatu. |

**METODOLOGIA**

| JARDUERA EREMUA | DENBORA | LEKUA | BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|
| 6. mailako ikasleak | 50 min | Gela | • Google Form galdetegia<br>• Ikasleen ipad-ak.<br>• Internet konexioa eta kanoia |

**GARAPENA**

Jarduera hau, proiektuarekin hasteko erabiliko da. Bere helburu nagusia lehenengo kontaktua egitea izango da. Horretarako, *Google Form* plataforman sortutako galdetegia bidaliko diegu *Air-Drop*-en, edo beste programa baten bidez eta hamar minutu izango dute galdetegia haien *ipad*-en bidez betetzeko eta bidaltzeko. Amaitzean, ikasle bakoitzak bere eskuinean esertzen den ikaslea aurkeztuko du hurrengo informazioa emanez:

- Izena eta bertute nagusia.
- Kolorea/kirola/animalia izango balitz, zein izango litzateke.

**JARDUERA**

Konektatu air-dropera eta bete helduko zaizuen galdetegia. Amaitzean sakatu “enviar” botoia eta itxaron zuen taldekideek amaitu arte.


NIRE PASAPORTEA
* Required
Izena eta abizenak *
Your answer
Zein da nire bertute nagusia?
Your answer
Animalia izango banintz ....... izango nintzateke
Your answer
Kolorea izango banintz........izango nintzateke
Your answer

